EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza
*Garraio Azpiegituren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES
Viceconsejería de Infraestructuras y Transportes
*Dirección de Infraestructuras del Transporte*

**EBAZPENA, 2022ko urriaren 14koa, Garraio Azpiegituren Zuzendariarena, zeinaren bidez ontzat ematen da "Erandioko tren kotxetegien oinarrizko proiektua".**

ETSk beharrezkotzat jotzen du Metroko lineen osagarri diren instalazio berriak gauzatzea, hau da tren kotxetegiak. Hauen kokapena ustiapenarekin lotutako puntu estrategikoetan izan behar du, hau da, kotxetegiak trenbidearen ibilbide inguruan eta ahalik eta funtzionamendu arrazionalena ahalbidetzen duten puntuetan.

3. linea martxan jartzearekin eta aurreikusten den 5. linearen eta aireporturako loturaren hedapenarekin, tren-kopurua dezente handitzen da. Honen ondorioz, beharrezkoak dira kotxetegiak aipatutako bi lineen ustiapenarekiko estrategikoki kokatuak izatea, baita Txorierriko korridorearekin eta Bermeo eta Durangorako lineekin lotura izatea.

ETSk 2016ko azaroan "ETSren Arriagaseko kotxetegiaren Azterlan informatiboa garatzeko zerbitzua" proiektua esleitu zion Arriagas kotxetegia U.T.E.-ari. UTEa PAYMACOTAS EUSKADI eta TRN, INGENIERÍA Y PLANIFICACIÓN DE INFRA-ESTRUCTURAS enpresek osatzen zuten.

Azterlan hori 2020ko azaroan informazio publikora aurkeztu zen, eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituretako zuzendariak, 2021eko martxoaren 24ko ebazpenaren bidez, behin betiko onetsi zuen.

**RESOLUCIÓN de 14 de octubre de 2022 de la Directora de Infraestructuras del Transporte, por la que se aprueba el "Proyecto Básico de cocheras para trenes en Erandio".**

ETS-RFV considera necesario la ejecución de nuevas instalaciones complementarias a las líneas de Metro, cocheras que sirvan de depósito, y distribuirlas estratégicamente en relación con la explotación. Además, estas cocheras deben situarse en las inmediaciones de la traza y en lugares que permitan la explotación más racional posible.

Con la puesta en servicio de Línea 3 y como la previsible ampliación de la red mediante la línea 5 y el acceso al aeropuerto, el parque de trenes ha aumentado considerablemente, lo cual hace necesario disponer cocheras estratégicamente distribuidas en relación con la explotación tanto de las líneas mencionadas como con el corredor del Txorierri y las líneas con destino Bermeo y Durango.

ETS-RFV adjudicó en noviembre de 2016 la contratación del "Servicio para la redacción del Estudio Informativo de las cocheras de Arriagas de ETS-RFV" a la U.T.E. Cocheras Arriagas, integrada por las empresas PAYMACOTAS EUSKADI y TRN, INGENIERÍA Y PLANIFICACIÓN DE INFRA-ESTRUCTURAS.

Dicho estudio fue sometido a información pública en Noviembre de 2020, y aprobado definitivamente mediante resolución del 24 de marzo de 2021 de la Directora de Infraestructuras del Transporte del Gobierno Vasco.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 97 24 – e-mail di-Trans@euskadi.eus

2021eko urriaren 14an, ETSk IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE, S.A.U. enpresari " Erandioko tren-kotxetegiaren eraikitze-proiektua garatzeko laguntza zerbitzua" kontratua esleitu zion. Kontratua 2021eko azaroaren 8an sinatu zen.

El 14 de octubre de 2021, ETS-RFV adjudicó a IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE, S.A. U. el presente contrato de "Servicio de apoyo para la redacción del Proyecto Constructivo de cocheras para trenes en Erandio". El contrato se firmó el 8 de noviembre de 2021.

Eraikuntza proiektuaren helburua Erandioko Playabarri industrialdean, Arriagako tunelaren hegoaldeko ahoaren ondoan, tren kotxetegia egiteko beharrezko obren definizioa da. Kotxetegia erabilera anitzeko eraikin batekin eta trenbide-zerbitzuaren ustiapenarekin lotutako langileentzako aparkaleku batekin osatuko da. Gehigarri modura materialak biltegiratzeko gunea eta mantentze-trenbide bat ere izango du.

El objeto del Proyecto es la definición de las obras necesarias para llevar a cabo la construcción de un depósito de trenes en el polígono de Playabarri en Erandio junto a la boca sur del túnel de Arriagas. Las cocheras para trenes se completarán con un edificio multiusos y un aparcamiento para el personal asociado a la explotación del servicio ferroviario, así como una zona de acopio de material y vía de mantenimiento.

Proiektu honek trenentzako kotxetegia, ondoan dagoen erabilera anitzeko eraikina, 11 trenbidez osatutako maniobragunea, Lutxana-Lezama trenbide nagusiarekiko 2 lotura eta eraikinen inguruko urbanizazioa egitea aurreikusten du.

El Proyecto contempla la ejecución de una nave de cocheras para trenes, un edificio multiusos aledaño, una playa de vías compuesta por 11 vías, 2 conexiones a la vía general Lutxana-Lezama y la urbanización y viales circundante a los edificios.

Obrak egiteko HOGEI (20) hilabeteko epea aurreikusten da.

Se ha determinado un plazo de ejecución de las obras de VEINTE (20) meses.

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua HOGEITA BOST MILIOI ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HAMAIKA MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA BAT ZENTIMOkoa (25.831.255,21 €) da, BEZ barne; eta Administrazioak horren berri izateko aurrekontua: HOGEITA BI MILIOI SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST ETA LAUROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEIT HAMALAU ZENTIMO. (22.665.086,74 €), BEZik gabe.

El presupuesto Base de Licitación asciende a VEINTICINCO MILLONES OCHOCIENTOS TREINTA Y UN MIL DOSCIENTOS CINCUENTA Y CINCO EUROS con VEINTIÚN CÉNTIMOS. (25.831.255,21 €). El presupuesto de la obra completa, para conocimiento de la Administración, sin IVA, asciende a la cantidad de VEINTIDÓS MILLONES SEISCIENTOS SESENTA Y CINCO MIL OCHENTA Y SEIS EUROS CON SETENTA Y CUATRO CÉNTIMOS (22.665.086,74 €).

Euskal Trenbide Sareko (ETS) Zerbitzu Teknikoek egiaztatu dute proiektu honek bere xedeari erantzuten diola.

Los Servicios Técnicos de Euskal Trenbide Sarea (ETS) han verificado que este proyecto responde a su objeto.

Organo honek eskumena du trenbide sareko proiektuak egiteko eta onartzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen

Este órgano es competente para la elaboración y aprobación de los proyectos de la red de Ferrocarril, según lo dispuesto en el artículo 16.2 b) del Decreto 11/2021 de 19 de enero de

duen 2021ko urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita, hau

**EBATZI DUT:**

**LEHENA:** "Erandioko tren kotxetegien oinarrizko proiektua" onartzea. Administrazioak horren berri izateko aurrekontua, BEZik gabe, HOGEITA BI MILIOI SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST ETA LAUROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEIT HAMALAU ZENTIMO. (22.665.086,74 €) da, eta obrak egiteko epea HOGEI (20) hilabetekoa izango dela aurreikusi da.

**BIGARRENA:** Oinarrizko proiektu hau onartzeak berekin dakar obrak onura publikokoak edo interes sozialekoak direla deklaratzea, okupatzeko beharra adieraztea eta dagokion Oinarrizko proiektuaren beraren eranskinean zerrendatuta dauden erasandako ondasunak eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla adieraztea.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Idazki hori organo honi edo Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari bidali beharko zaio.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien aretoan, hargatik aldez aurretik errekerimendua egitea eragotzi gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

2021, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vistas las disposiciones citadas, y demás concordantes y de general aplicación,

**RESUELVO:**

**PRIMERO:** Aprobar el "Proyecto Básico de cocheras para trenes en Erandio" con un presupuesto para el conocimiento de la Administración, IVA excluido, de VEINTIDÓS MILLONES SEISCIENTOS SESENTA Y CINCO MIL OCHENTA Y SEIS EUROS CON SETENTA Y CUATRO CÉNTIMOS (22.665.086,74 €), y con un plazo total de ejecución estimado para las obras de VEINTE MESES (20) meses.

**SEGUNDO:** La aprobación de este proyecto básico conlleva la declaración de utilidad pública o interés social de las obras, la necesidad de ocupación y la declaración de urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados relacionados en el anexo correspondiente del propio Proyecto Básico.

Esta resolución no es definitiva en vía administrativa y contra ella los interesados pueden interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Infraestructuras y Transportes, dentro del plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación o publicación, dirigiendo el escrito de interposición bien a este órgano, bien al Viceconsejero de Infraestructuras y Transportes.

Las Administraciones Públicas podrán interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos (2) meses, ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sin perjuicio de poder efectuar requerimiento previo en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Jendaurrean jartzen da, guztiek horren berri izan dezaten.

Gasteizen, 2022ko urriaren 14an

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz a 14 de octubre de 2022

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

DOLORES DE JUAN DE MIGUEL
**GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARIA**
**DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURAS DEL TRANSPORTE**